

## 0.- SARRERA

Iritsi da Bidankozarteko zenbaki berri bat, ohi baino atal gutxiagorekin, oraingo honetan Don Nikolasen figura aintzat hartzen saiatuko baikara. Orain dela 20

urte hildako Bidankozeko parrokoak izugarri ikerketa-lanak egin zituen.

Berari eskainitako artikulua toki asko bete du eta aurreikusitako beste artikulua batzuk hurrengo baterako utziko ditugu.

Nola edo hala, ale berri hau zuen interesa erakartzea eskero dut.

Goazen, bada, edukietara.

## 1.- 1916AN JAI OAK, EZKONDUAK ETA HILDAKOAK

Duela 100 urte urteko naziorik boteretsuenak ordurarte inoiz ez ezagututako gudarik txarrean sartuta zeuden, urte eta erdi zeramaten zartakoka eta hark ez zuen konpontzeko itxura handirik, eta beraz 1916. urte osoa horretan jarraitu zuten. Geuretakoi ez zien zuzen erasan gatazka, hesitik ikusten ari zirela esan dezakegu, baina kontuan hartu behar da iparraldean 18 kilometrorra zeuden aldameneko herriek ehundaka biztanle borroketan galdu zituztela, eta eskualde horrekin harremana bazegoela (artzinak, espartinak egitera joaten ziren enarak...).

Gurean, Espainiako egoera politiko eta ekonomikoa ez zen batere ona ere, eta ez zuen gatazka armaturik falta ere, Rifeko Gerra (edo Marokoko Gerra), non inperio izandakoaren karrikatura geratzen zitzaion ia kolonia bakarraren gaineko kontrolari eusten saiatzen zen. Marokoko Gerra, soldadutzara deitutako kintoen xede, aldameneko Frantziako I. Mundu Gerrako oihartzunak eta Amerikak egindakoen eskutik Argentinan etorkizuna lantzeko aukera ikusita, Bidankozeko gazte batzuk mailetak prestatzen animatu ziren urte hauetan.

Herrian, bitartean, bizitzak berean jarraitzen zuen, eta 1916. urteak 15 jaiotza, 6 ezkontza eta 6 hildako besterik ez zuen utzi.

15 jaiotza horiek banatuta egon ziren sexuari dagokionean, 8 neska eta 7 mutil. Hainbeste haur artean, espero ahal den moduan, denetarik pixkat egon zen: bikien bikote bat (Eugenia eta M<sup>a</sup> Jeus), jaiotza eta berehala hildako bat (izenik gabe), hilabete edo urte gutxiarekin hil ziren batzuk (Secundino, Julia eta Eladio), Gerra Zibilean hildako bat (Bernardino), Argentinara emigratu zuen bat (Raimundo), lekaide eta lakaima bana (M<sup>a</sup> Jesus eta Perpetuo) eta beste batzuk Bidankozen ezkondu eta familiaburuak izan ziren. Kinta hartako ordezkariak

adintsuena, Teodora, duela bi urte garai honetan hil zen, bizitzako mendea besarkatzeaz zegoenean. Hauexek izan ziren 1916an jaiotzak, haien jaiotetxea eta, dagokionean, ze etxera ezkondu ziren:

- Teodora Rodrigo Iriarte (*Maizena / Txantxoliti*)
- Raimundo Sanz Fuertes (*Txantxoliti / Mendigatxa*)
- Bernardino Ornat Landa (*Bomba*)
- Eugenia Gaiarre Nekotxea (*Gaiarre / Cosme / Pelairesa*)
- M<sup>a</sup> Jesús Gaiarre Nekotxea (*Gaiarre*)
- Daciano Ezker Pérez (*Landarna / Llabari*)
- Secundino Urzainki Urzainki (*Pantxo*)
- Perpetuo Navarro Karrika (*Pexenena*)
- Julia Ornat Sanz (*La Santa*)
- Eusebia Mainz Mendigatxa (*Bernabé*)
- Irene Jimeno Mendigatxa (*Llabari / Montes*)
- Felipa Ysabel Urzainki Hualde (*Ferniando*)
- Andresa Juanko Jimeno (*Antxon / Diego*)
- N. Urzainki Mainz (*Artutx*)
- Eladio Urzainki Pérez (*Kostio*)

Ezkontzen atalari dagokionez, urte hartan 6 ezkontza egon ziren Bidankozen, eta haietatik 5 bikote izan ziren Bidankozeko familiaburuak (*Pelaires, Jose Maria, Danielna, Xapatero* eta *Zinpintarna* etxetan) eta haietako bat besterik ez zen joan beste herri batera bizitzera.

Bikoteen artean ere denetarik pixkat, batzuk gutxi irauan ziren senarra edo emaztea heriotzarengatik, eta beste batzuk iraunkoragoak izan ziren, batzuk emankorrak eta beste batzuk ez horrenbeste, eta bi ezkontzatan besterik ez zen egon kanpoko senarra edo emaztea,

eta beraz, Bidankozeko 9 etxetan ezkontza izan zutela esan dezakegu, ezkontza bikoitza izan baitzen Danielnatarrentzat, Juan eta José María Sanz Jimeno anaiak egun berean ezkondu baitziren. Esan dugun moduan, denetarik pixkat:

- Pedro Hualde Jiménez (*Pelaires*) & María Gaiarre Guinda (*Gaiarre / Pelaires*)
- José María Sanz Jimeno (*Danielna / José María*) & Jacoba Hualde Mainz (*Navarro / Danielna / José María*)
- Juan Sanz Jimeno (*Danielna*) & Gila Sanz Calvo (*Txantxoliti / Danielna*)
- Eriberto De Andrés Barberena (Sarriés / *Xapatero*) & Ysidra Fuertes Beretens (*Xapatero*)
- Miguel Mantxo Mendigatxa (Navascués) & Faustina Ornat Jimeno (*Ornat / Navascués*)
- Félix Sanz Navarro (*Laskorna / Zinpintarna*) & Elena Jimeno Salbotx (*Zinpintarna*)

Bukatzeke, urte hau bereziki ona izan zen heriotzei dagokionez, 6 besterik ez batezbeste urtean 9 lagun hiltzen zirenean, jaioberri bat, urtebeteko neskato bat (Nicolasa) eta gainerakoak 70 urtetik gorako helduak, haien artean bi anaia, zeinetako bat 94 urterekin hil zena (Juan Melchor).

- Nicolasa Landa Arguedas (*Arotx*)
- Marcelina Salbotx Otxoa (*Salbotx*)
- Martín Urzainki Gárate (*Ferniando*)
- Juan Melchor Jimeno Pérez (*Jimeno / Danielna*)
- José Jimeno Pérez (*Jimeno / Landarna*)
- N. Urzainki Mainz (*Artutx*)

Dirudienez, 1916 urte ona izan zen.

## 2.- EFEMERIDEAK - 20 URTE DON NICOLASEN HERIOTZATIK (1996/02/19)

1996ko otsailaren 19an, orain dela 20 negu, Don Nicolas hil zen, gure herrian bizi zen azken parrokoa. Nicolas Iribarren Tainta Gorzan jaioa zen, Zaraitzun, Bidankozetik 10 kilometrora eta, nahiz eta gazte samar hil, 63 urte zituenean, ia lau hamarkada eman zituen Endone Petri Apostolu gure parrokiaren aurrean, haietako azkenak, gainera, Igariko parrokiaren buru izanda ere.

40 urte luze horietan Don Nicolasek apeza-parrokoaren lana egin zuen nagusiki, eta ardura horregatik ohi da ezaguna, bidankoztarren artean askok arlo horretan oroitzu. Horrela, parrokiako kudeaketarekin lotutako guztiaz arduratzen zen, elizkizunak ospatzeaz eta sakramenduak emateaz. Izan ere, elizan egindako azken ezkontzak berak egindakoak izan ziren (salbuespen batekin).

Baina Don Nicolasek ikerketa-lana egin zuen ere, hau ezezaguna izanda askorentzat eta, horrexegatik, ez diogu behar den bezala esker onik eman. Balio dezan artikulu hau eta Bidankozarteko blogean bere hedapenarako egokituko den tokia berak egindako lan hori guztia balioan jartzeko. Landutako arloak hurrengo paragrafoetan azalduko ditut.

Nire ustez Don Nicolas honekin hasiko zen noraino iritsiko zen jakin gabe. Horrela, egingo zuen lehenengo lana Bidankozeko parrokiako sakramentu-liburuetan idatzitakoaren aurkibideak sortzea izango zen. Liburu hauek, bataio, sendotza, ezkontza eta heriotzen berri gordetzen dutenak, Bidankozen 1701-1702 urtetik idatzitako erregistroak gordetzen dituzte, baina aurkibiderik ez zegoenez, haien barruan edozen datu bilatzea oso lan neketsua bihurtzen zen. Don Nicolasek aurkibide

horiek sortu eta makinan idatzi zituena, baina egitean idatzitakoan aipagarri ziren hainbat xehetasun zeudela konturatu omen zen (atzerriko ezkongaiak, behin baino gehiagotan ezkontutakoak, era ezohiko batean hildakoak...), eta ohar hauek guztiak biltzen ere hasi zen.

Ez dakit genealogiaren arloan interesik aurretik izango ote zuen baina, bestela, argi dago sakramentu-liburuen aztertzelan hori bere jakin-mina sortu zuela. Lan honetan sakonduz, *Genealogien liburu* izeneko dokumentua egin zuen, Bidankozen egondako ezkontza guztiekin eta haien ondorengoekin, ezkontza eta jaiotzen urteak ere gehituz, eta 1771 pertsona-fitxen sorta bat, bidankoztar batzuen esku zituen hainbat datu biltzen (bataio, sendotza, ezkontza eta heriotza).



Bere lanari balioa kentzeko asmorik gabe, dokumentu horiek erabiltzean hutsuneak daudela hartu behar dugu kontuan: alde batetik, Genealogien liburuan ez dira agertzen beste herritan ezkontutako bikoteak, nahiz eta gero Bidankozen bizi eta seme-alabak izan, eta horregatik famili kopuru gogoangarri bat faltako da. Bestetik, fitxei dagokionez (haietako batzuk, gainera, kanpoan jaiotako ezkongaienak dira, hau da, Bidankozen ez jaiotakoak), haien kopurua ez dator bat Bidankozen 1702tik bataiatutako 3000 inguru haurrekin, eta kontua da haien erdia-edo falta dela aitzaki

ezberdinengatik (beste herri batera ezkondu ziren, emigratu ziren...).

Bidankozeko etxe bakoitzaren joan-

etorrietan sakonduz, izugarrizko lana egin zuen parrokiako matrikula-liburuetan 1861-1862tik bildutako datuak etxeekin lotuta biltzen.

Matrikulak *arimen erroldak* antzeko kontuak ziren, urtero edo bi urtetan behin egiten ziren eta familiak bereizten ziren, eta honek, gehienetan, etxe bakoitzean bizi

zirenekin dator bat, nahiz eta etxearen izena ez aipatu. Guztira 350-400 lagun inguru zituzten 91 zerrenda (azkenekoak jaitziera hutsean) Don Nicolasek aurkibide moduko batean batu zituen, eta honi esker 120 urtez etxe gehienetako familien jarraipena egin dezakegu. Kasu honetan hutsuneak badaude ere, familian oinordekorik izan ez duten etxeetan bereziki (bikote bat *oinorde* joan zen etxeetan, adibidez) edo urte batzuk hutsik eman dituzten etxeak.

Lan hau borobiltzeko, 1970ko hamarkadan Bidankozen geratzen ziren familiaburen zuhaitz genealogikoak egiten hasi zen, baina *Ilegako* ibilbidea jarraituz *Gaiarre* etxetik *Juanko* etxera besterik ez zen iritsi.

Baina bere zeregina ez zen horrekin bukatu. Genealogiari dagokion izugarrizko lanaz gain, Don Nicolasek hainbat ogibide edo taldeen fitxen eta irudien sorta bat egiten saiatu zen: idazkariak, maisuak, sendagileak, zirujau-praktikanteak, emaginak, parrokoak, sakristauak, alguazilak, errotariak, arotz-ferratzaile-albaitariak, karabineroak... Osatu edo ez hainbeste dauden zerrendak, xehetasun maila ezberdinekin, haien inguruko oharak sakramentu-liburuetan aipatuak izanda.



Bidankozeko lekaide eta lekaikeen inguruan egindako fitxak aparteko aipamena merezi dute. Haien inguruko sakramentu-liburuetan agertutako datuak bildu zituen, matrikula-liburuetan agertzeari utzi ziotenera arte, honek komentu, monasterio, seminaria edo zegokienerako bidea hartua zutela seinale baitzen. Kasu batzuetan ere, haien bizitzen inguruko oharrek agertzen dira.

Honainokoa ikusita, Don Nicolasen lana parrokia-liburuen azterketa sakona besterik ez zen izan esan genezake, ia horiei buruzko doktore-tesia, baina ez zen horretan geratu. Bidankozen egondako hainbat pertsona famatuen argazkia biltzen saiatu zen, lehen aipatutako ogibideena zein lekaide eta lekaiameena. Zentzu honetan, eliz-gizon eta emakumeenen, bere lana Erronkari eta Zaraitzu ibarretara zabaldu zuen, nahiko argazki bilduma handia lortuz, baina, zoritxarrez, gaur egun nahiko elbarritua dago.

Beste arlo batean, kazetari moduko lana egin zuela esan dezakegu, *Diario de Navarra*arekin kolaboratzen 1979 eta 1993 urteen artean, Botin sasizenaren azpian berriemailearena egiten edo Bidankozeko baselizez edo pertsonaia historikoez aritzen edo berak ezagututako lekaide edo lekaiameei buruzko heriotza-oharrak idazten. Honen aurretik, 1968 eta 1970 urteen arten La Verdad eliza-aldizkarian ere hainbat artikulua argitaratu zuen.

Aurreko guztiaz gain, eta bukatzen joateko, 1975ean Bidankozen ospatutako lehenengo "*Uskararen Eguna*" horren antolatzaileetako bat izan zen, Mariano Mendigatxa eta Prudenzi Hualderi lehenengo aldiz omentzeko egindako xeian. Jaialdi hau hazitzat har daiteke urte batzuk beranduago Hualderi omentzeko Rakax etxean 1979an Bidankozen

ospatutako *Erronkari Ibaixo Egunean* ipinitako plaka, haren heriotzaren mendeurrena ospatzen zenean.



Azken finean, Don Nicolasek gure herriaren aldeko lan aipagarria egin zuen eta, nahiz eta hil eta 20 urte beranduago izan, esker ona jasotzea merezi du.

Nire aldetik, bere lan genealogikoari dagokionez, badira urte batzuk Don Nicolasek utzitako hutsuneak betetzeko erronka aztertu nuela, baina egin beharrekoa ikusita, lana ia zerotik hastea erabaki nuen, era sakona, mehatza eta sistematizatutako batean, ahalik eta informazio hutsune gutxien uzteko asmoan. Proiektua hori, 6 urte azkarrago



edo motelago garatzen egon naizena, dagoeneko bere azken zatian dago, eta bukatzen denean Bidankozen 1700 eta

1960-1970 urteen artean bizi izan diren (eta dokumentazioan *aztarna* utzi dutenak) 5000tik gorako pertsona lotzeko aukera emango digu. 1960-1970eko hamarkadetatik aurrean zaila dugu arrastoa jarraitzea bai jaiotzak, bai ezkontzak eta baita heriotza gehienak ere heritik kanpo gertatu izan badira.

Zuetako asko agertuko zareten zuhaitz genealogiko erraldoi hau osatuta dagoenean, helburua

da etxe bakoitzaren eskualdatzea nola gertatu den aztertzea, horretarako parrokia-matrikulek zein populazio apeoek lagunduta, eta ondoren informazio osagarriarekin osatu (prentsa oharrek, notario dokumentazioa, ogibideei buruzko aipamenak edo idazkietan aurkitutako bestelakoak, eta abar...). Era honetan, familia askoren arrastoa 10 belaunaldietan zehar jarraitzeko gai izango gara hainbat kasutan. Lan hau nahi adina luza daiteke, baina iristen zaion sakontasun mailaz aparte, ona izango da.

Baina tira, hau hurrengo zatia izango da, oraindik denbora gehiago eskatuko duena. Momentuz, 2000 pertsona daude lotuta dagoeneko, eta oraindik 1775era arteko ezkontzak eta haiek oinordeak besterik ez dira agertzen, azkenengo hauek XIX. mendeko hasiera arte jaiotak.

Bukatzeko, eta artikulua honen hasieran seinalatzen nuen moduan, 2016ko otsailaren 19an (Don Nicolasen heriotzaren 20 urte beteko diren egunean) Bidankozen bizi zen azken parroko honek utzitako ondarea hedatzeko atal berezi bat egongo da eskuragarri Bidankozarteko blogean.

Eskerrik anitx, Don Nicolas.



### 3.- OIKONIMIA - LIXALTE

Oraingoan *Iriarte*ko auzoko etxe batean arakatuko dugu 5. aldiz: *Lixalte etxea*, gaur egun *Iturria* izeneko karrikan kokatua.

*Lixalte* etxeaz pentsatzen denoi gertuko iragana datorkigu burura, hau da *Lixalte* taberna eta Luis zena barraren atzean, eta pixkat atzerago begira, Rafaela zena denda kudeatzen gogora dezakegu. Baina, hark esango zuen moduan, *hori herenegun izan zen*, duela gutxiko iragana.

Denboran atzerago jotzen, *Lixalte* etxea jenderik gabe egon zen ia hogei urtez, 1952 eta 1970 inguru arte, familiako zorigaitz baten ondorioz: Fuertes Juanko familiaren bi buruak, Concepción eta Venancio, heriotza goiztiar izan zuten 5 urteko epean, 1947 eta 1952 artean, utzi zituzten hiru umezurtzen ardura amaren familiak hartuz, *Paxapandarrak*, eta etxe hartan bizi ziren urte batzuez Fuertes Juanko anai-arrebak.

Hutsik egon zen garai honen aurretik, etxeak *ohiko* oinordetza izan zuen belaunaldi batzuetan zehar, 1810era arte gutxienez jarrai dezakeguna. Bidetik, eta Fuertes Juanko anai-arrebak sartzen baditugu, Fuertes abizenarekiko bost belaunaldi igaro dira, etxe honetara 1831an Pedro Miguel Fuertes Eseberri (*Fuertes*) eta María Antonia Ustés Barrikaten (*Lixalte*) arteko ezkontzarekin iritsi zena. Beraz, *Lixalte* etxean lehen Ustes abizena zuten? Beno, egia esan belaunaldi batean besterik ez zuten izan, abizena Burgitiek igo zen 1806an. Eta aurreko belaunaldiak Barrikat (edo Barrikart, idazkera erraz aldatzen baita agiritan) ondoriozta dezakegu, eta abizen hau ere Erronkaritiek bi belaunaldi lehenago etorria izango zen. Hortik atzera, momentuz, usteak besterik ez.

Nola edo hala, etxearen izena bere baitan bizitakoen abizena noizbait Elizalde izan zela dudarik gabe esan dezakegu, eta honi Bidankozeko ahoskera gehitzen

badiogu, non “z” doinua “x” bihurtzen da, eta hasierako “e” hizkia erabileraren poderioz galdu egin zela, *Lixalte* geratzen zaigu. Patuaren bitxikeriak, gaur egungo Bidankozen Elizalde izeneko beste etxe bat badago.

Eta are bitxiago oraindik bi etxe hauen izena haren esanahiarekin bat ez etortzea, hau da, elizaren aldean edo ondoan ez egotea. Baina tira, honek azalpen erraza du, Bidankozeko etxeen izenak garai batean haien jabe izandako abizenatik hartzen ohi baitzuten.



Kontua da Elizalde bat baino gehiago egon dela Bidankozen azken bi mendeetan zehar, bai *Elizalde* etxean (eta hortik bere egungo izena), bai *Paskel* etxean, non Salbatierratik iritsi zen Elizalde bat, Cleto, eta *Elizalde* etxeari izena emango zionaren arbasoa izan zena, baina ez dago abizen horren arrastorik *Lixalte* etxean.

Etxean Elizalderen bat noizbait bizi dela mentura dezakegu, baina ziur aski jarraitu ahal dugun familien genealogia baino lehenagoko momentu batean. Horrela, 1613an Bidankozen zegoen nekazal eta abere-ogasuna biltzen duen agiri batean (Bidankozarteko 9. zenbakiak aztertutakoa) “*Catalina Burdaspar, Joanes Eliçalten emaztea*” agertzen da, aurrean erakutsitako teoriaren aldekoa izango zena.

Eta pixka bat gehiago bilatuz, XVI. mendearen hasieran egindako *Etxe zenbatzean* Eliçalte abizena askoz ugariagoa zen, eta Bidankozeko 73 etxejabeen artean lauk zuten abizena garai hartan.

Hori dela eta, seguruenik, *Lixalte* etxearen izena antzinakoa izango da. Eta beharbada ere, beste etxe-izenen batekin gertatu den moduan (bere unean ikusiko dugu), jatorrian etxeak *Lixalterna* edo *Lixaltena* izango zuen izena, eta denborarekin bukaerako atzizkia galduko zuen.

Baina *Lixaltez* gain, eta Miguel Mainz Salbotx-ek (*Jimeno*) adierazi zuen moduan, garai batean bidankoztar batzuek etxeari *Leokadi* esaten zioten, ez dakigu Leocadio edo Leocadia batengatik izango zen. Bidankozen 1701etik 5 Leocadio edo Leocadia besterik ez da egon baina, halabeharrez, *Lixalte* etxeako genealogian atzera eginez Leocadia Gorria Drunda aurkituko dugu, bere garaian etxea oinordetuko zuena eta Barrikat abizena ekarri zuenarekin ezkondu zena.

Etxeako kanpoko itxurari dagokionez, gaur egun ezagutzen dugun eraikina oso zaharra ez dela pentsarazteko hainbat xehetasun ditugu: 3 solairu eta sabaiao izatea (ohikoa 2 solairu eta sabaiao izatea zen), leiho eta balkoi handiak izatea, izkinetan eta leihoen markoetan harginak landua ez egotea... Horrek guztiak honen inguruan Trinidad Montes Fuertesek (*Montes / Hualderna*) esandakoarekin bat etorriko zen, honek zera esaten baitzuen: bere ama *Lixalte* etxeakoa zen, eta etxea zaharberrituta edo berreginda izana zela bere ama gazte izatean, eta hori XX. mendeko lehenengo hamarkadetara eramango gintuzke.

Eta momentuz, hau da *Lixalte* etxeari buruz esan dezakeguna.

### 4.- BUKAERA

Ia zenbaki hau ixteko lekurik gabe, hurrengorarte agurtuko dut, hiru hilabete barru argitaratuko

dena, Aste Santuan, eduki berriez beteta.

Ordurarte, negu ona izan.

Agur bero bat

LAGUNTZAILEA:

AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
VIDANGOZ



BIDANKOZEKO  
AIZA BULGUA